



AMASA-VILLABONA

Villabonako Udala

Jokin Bildarratz Sorron, Hezkuntza Sailburu jauna,

Haurreskolak Partzuergoko lehendakaria zaren heinean, eta Hezkuntza sailburu izateagatik duzun ardura eta erantzukizunagatik, adierazi nahi dizut Amasa-Villabonako udaleko ordezkari gisa kezka handiz jaso ditugula Haurreskolak Partzuergoko Gerenteak iragan azaroaren 16an, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza batzordean egindako adierazpenak.

Zorione Etxezarraga Ortuondo andreak, ondorengoa adierazi zuen, publikoki:

"Nik onartzen dizuet, (lan hitzarmena) ez dut aplikatu. Eta ez dut aplikatu, ze ezin dut aplikatu, ez daukadalako dirurik. Ez zait iristen. Onartzen dut modu aldebakarrean ari naizela ezohiko erabaki bat hartzen, baina, aurrekontuan ez dago horretarako."

Adierazpenok oso larriak iruditzen zaizkit, izan ere, gure udala kide den Haurreskolak Partzuergoko lan hitzarmena ez dela betetzen ari, adierazi du kudeaketa ardura gorenaren Gerenteak.

Hau dela eta, gure herriko haurren hezkuntza eskubideak ahal hoberen bermatzeko, eta ondorioz, gure herriko Haurreskolako langile guztien lan baldintzak bermatzeko, babestu egiten dut LAB, Steilas eta ELA sindikatuek abenduaren 10 eta 16rako egindako greba deialdia eta behar beharrezkoa deritzot aipatutako Partzuergoko aurrekonturako zuzkidura beharrezkoa den guztia handitzea datorren urteko aurrekontu legean. Hau dela eta, ondorengoa

ESKATZEN DIZUT:

Haurren hezkuntza eskubideak ahal hoberen betetzeko, hezkuntza zerbitzu honen kalitatea bermatzeko eta lan hitzarmena eta adostuta dauden akordio guztiak behar bezala gauzatzeko, Haurreskolak Partzuergoko aurrekontua beharrezkoa den guztia handitzea datorren urteko aurrekontu legean.

Amagoia Agirre Alkorta
Amasa-Villabonako Hezkuntza zinegotzia



Amasa-Villabonan, 2020ko abenduaren 10ean